

## **IKASLEAK ASKE HEZI NAHI DITUGU.**

Urtarrilaren 14an Baztango UPNko zinegotzi batek *Diario de Navarra*-n idatzitako *Sí se adoctrina* artikuluaen harira, argi utzi nahi dugu guk ez dugula inor adoktrinatzten. Mingarria zaigu joku politiko interesatuen baitan sortutako kalapita faltsuetan, geure burua enegarren aldiz zikindua ikustea.

Ikasturte hasmentan ikasleei emandako eta gurasoek sinatu eta onartutako programazioan agertu bezala, Lekarozko Euskara Departamentuak ikasle talde bati liburu baten irakurketa proposatu zion. Iduri duenez, liburua ez da artikulua idatzi duenaren eta UPNren gustokoa izan, eta hori aitzakia hartuta alimalekoak erran ditu aipatutako departamentuaren kontra. Manipulazio eta adoktrinamendu bezalako hitzak erabili ditu arrazoieta eta Euskara eta Literatura mintegiko irakasleen profesionaltasuna zalantzan paratu du. Bertzalde, ez da ahalke izan irakasle batzuen bizitza pribatua epaitzeko eta zenbait ondorio faltsu ateratzeko.

Gure bailaran, nobela beltzaren suspertzea eman da (H)ilbeltzak azken urteetan antolatu dituen ekintzen ondorioz eta oihartzuna Euskal Herri osorat hedatu da. Oihartzun honen parte izan nahirik, Lekarozko Euskara Departamentuak hiru nobela beltz proposatu zizkien ikasleei leitzeko DBHko maila honetan. Baztango UPNko zinegotzi honek hauetako liburu bat adoktrinatzeko tresna dela adierazi du. Euskara Departamentukideek irakurzaletasuna bulkatzea dute helburu, eta ez inor adoktrinatzea.

Hortaz, Lekaroz BHko klaustroak sendo bezain ozen erran nahi du, ikastetxearen baitan irakasleok hartzen ditugun erabaki pedagogikoak eta lana, lekuz kanpo, auzitan paratzea onartezina dela.